

Bizkaiko Foru Aldundiaren 4/2013 FORU DEKRETUA, urtarrilaren 22koa, Fakturazio- betebeharrei buruzko Araudia onesten duena (BAO Urtarrilaren 29koa)

Bizkaiko Lurralde Historikoan fakturazioari buruz dagoen araudia, gaur egun, bi xedapen orokorretan oinarritzen da: fakturazio-betebeharrak araupetzen dituen apirilaren 6ko 57/2004 Foru Dekretuan eta uztailaren 2ko 1868/2009 Foru Aginduan (haren bidez, 57/2004 Foru Dekretuan fakturazio telematikoaz eta fakturak formatu elektronikoarekin gordetzeaz ezarritako xedapen batzuk garatzen dira).

Kontseiluaren abenduaren 20ko 2001/115/EE Direktibak Seigarren Direktiban sartutako aldaketen ondorioz, 57/2004 Foru Dekretuak gure tributuo-ordenamenduan sartu zituen Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokion fakturazioaren arloko arauak, baldintzak eta gainerako araubide juridikoa, seigarren direktiba horretan ezarritakoak.

2010eko uztailaren 13an, 2010/45/EB Direktiba onetsi zen; haren bidez, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren sistema komunari buruzko 2006/112/EE Direktiba aldatu zen, fakturazio-arauei dagokienez, eta direktiba hori transposizioz jaso behar da Europar Batasuneko estatuen ordenamendu juridikoan. Aldaketa horren bidez lortu nahi diren helburu nagusiak hauek dira: subjektu pasiboen administrazio-kargak murriztea, paperezko fakturen eta faktura elektronikoen arteko tratu-berdintasuna bermatzea, transakzio ekonomikoak erraztea eta eragile ekonomikoen segurtasun juridikoan laguntzea arloari buruzko araudiaren aplikazioa dela eta.

Foru dekretu honen bidez onesten den araudia eta aurreko arautegian jasotzen zena ez dira oso desberdinak; izan ere, aurreko arau batzuei eutsi zaie (bai eta haien idazketari ere), eta Europako fakturazioaren arloko araudia ez urratzeko aldatu beharreko alderdiak besterik ez da ukitu.

Araudi berri honen bidez, faktura mota bitan oinarritutako fakturazio-sistema bat ezartzen da: faktura osoa edo arrunta eta faktura sinplifikatua, tiketak ordeztzen dituena. Gainera, fakturazio elektronikoa irmoki bultzatzen da, eta faktura elektronikoen definizio berri bat ezartzen da: formatu elektronikoan egin eta jaso den faktura, enpresa-jardunean edo jardun profesionalean bertan ohikoak diren kudeaketa-kontrolen bidez bermatzen dena.

Azkenik, araudi honek fakturak egiteko epea aldatzen du, hartzailea enpresaburua edo profesionala bada. Lehen, hilabeteko epea zegoen eragiketa sortzen zenetik; orain, berriz, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren likidazio aldia -eragiketa egin denekoa- amaitu ondorengo hilaren 16a baino lehen egin beharko dira fakturak.

Hori dela bide, Ogasun eta Finantzen foru diputatuak proposatuta eta Foru Aldundiak 2013ko urtarrilaren 22ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau,.

XEDATZEN DUT:

1. artikulua. Fakturazio-betebeharrei buruzko Araudia onestea.

Fakturazio-betebeharrei buruzko Araudia onesten da, eta foru dekretu honi eranskin legez batzen zaio.

2. artikulua. Zelan justifikatu zenbait eragiketa finantzario.

1. Balore higigarrien eskuraketa justifikatzeko, fede-egile parte-hartzaileak egindako agiri publikoa erabili ahal izango da, edo erakunde finantzarioak edo -hala badagokio- inbertsio-zerbitzuen enpresak egindako agiria, eragiketari buruzko datu guztiak jasotzen dituena.

Etekin inplizituko finantza-aktiboen eskuraketa zein eskualdatzearen, amortizazioaren edo itzulketaren unean atxikipena egin behar zaien etekin esplizituko finantza-aktiboena artikulua hauetan xedatutakoaren arabera justifikatuko da: Sozietateen gaineko Zergari buruzko Araudia onetsi zuen 1997ko ekainaren 10eko 81/1997 Foru Dekretuko 58. artikuluan eta 2007ko azaroaren 20ko 207/2007 Foru Dekretuak onartu zuen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudiko 112. artikuluan.

2. Kreditu-erakundearen eragiketak direla eta egindako gastuak eta kenkariak justifikatzeko, erakundeak emandako kargu-agiri, -laburpen edo- oharra erabili ahal izango da, faktura baten ohiko datuak jasotzen dituena (zenbakia eta saila izan ezik).

XEDAPEN IRAGANKORRA

Bakarra. Urriaren 24ko 133/1995 Foru Dekretuarekin eta fakturazio-betebeharrak araupetzen dituen apirilaren 6ko 57/2004 Foru Dekretuarekin bat emandako baimenen indarraldia.

1. Honako baimen hauek indarrean jarraituko dute, berariaz baliogabetu ezean:
 - a) Fakturak ez egiteko Ogasun eta Finantza Saileko organo eskudunak ematen dituen baimenak, hain zuzen, honako artikulua hauekin bat emanak: enpresaburu eta profesionalak faktura luzatu eta eman beharra araupetzen duen urriaren 24ko 133/1995 Foru Dekretuko 2.2.d) artikuluekin bat eta fakturazio-betebeharrak araupetzen dituen apirilaren 6ko 57/2004 Foru Dekretuko 3.1.d) artikuluekin bat.
 - b) Zuzendutako fakturak ez zehazteko Zerga Administrazioako organo eskudunak emandako baimenak, hain zuzen, honako artikulua hauekin bat emanak: enpresaburu eta profesionalak faktura luzatu eta eman beharra araupetzen duen urriaren 24ko 133/1995 Foru Dekretuko 10.3 artikuluekin bat (bigarren paragrafoa) eta fakturazio-betebeharrak araupetzen dituen apirilaren 6ko 57/2004 Foru Dekretuko 13.4 artikuluekin bat. Kasu horietan, nahikoa izango da faktura zuzentzaileei dagokien epealdia zehaztea.
 - c) Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak fakturazio-betebeharrak araupetzen dituen apirilaren 6ko 57/2004 Foru Dekretuko 18.1.b) artikuluekin bat emandako baimenak, betiere baimendutako osagaiek betetzen badute foru dekretu honek onartutako Fakturazio-betebeharrei buruzko Araudiko 10. artikuluan ezarritakoa.
2. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera, indargabetuta geratzen dira Zerga Administrazioako organo eskudunak enpresaburu eta profesionalak faktura luzatu eta eman beharra araupetzen duen urriaren 24ko 133/1995 Foru Dekretuko 4.1 artikuluekin bat emandako baimenak, hain zuzen, hartzailearen datuak ez jasotzekoak.
3. Orobat indargabetuta geratzen dira, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera, Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak fakturazio-betebeharrak araupetzen dituen apirilaren 6ko 57/2004 Foru Dekretuko 6. artikuluko 7. eta 6. zenbakiekin bat emandako baimen hauek: foru dekretu horretako 6.1 artikuluan aipatzen diren datu guztiak fakturan ez agertzeko baimenak. Aitzitik, berariaz baliogabetu ezean, indarrean jarraituko dute ondorengo datuak jasotzen dituzten fakturak egiteko emandako baimenek: fakturaren egite-data, faktura egin behar duen pertsonaren identitatea, emandako ondasunen identifikazioa edo egindako zerbitzu-prestazioena eta zerga-kuota edo hura kalkulatzeko datuak.
4. Ordezko agiriak egiteko Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak emandako baimenak - enpresaburu eta profesionalak faktura luzatu eta eman beharra araupetzen duen urriaren

24ko 133/1995 Foru Dekretuko 4.2.n artikuluekin bat emanak- zein fakturen ordeztu agiriak emateko Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak emandakoak -apirilaren 6ko 57/2004 Foru Dekretuko 4.1.ñ artikuluekin bat emanak- faktura sinplikatua egiteko baimentzat hartuko dira, foru dekretu honek onesten duen Fakturazio-betebeharrei buruzko Araudiko 4.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, eta indarrean jarraituko dute, berariaz baliogabetu ezean.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bakarra.

1. Foru Dekretu hau indarrean jartzen denean indargabetuta geratuko da 57/2004 Foru Dekretua, apirilaren 6koa, fakturazioaren inguruko betebeharrak araupetu dituenak.
2. Horrekin batera indargabetuta geratu dira Foru Dekretu honetan xedatutakoaren aurka dauden edo harekin bat ez datozen.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena. Indarrean jartzea.

Foru dekretu hau «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean, eta 2013ko apirilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Bigarrena. Garapena.

Ahalmena ematen zaio Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuari, foru dekretu honetan ezarritakoa garatzeko eta betearazteko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

ERANSKINA FAKTURAZIO-BETEBEHARREI BURUZKO ARAUDIA

ATARIKO TITULUA ERAGIKETAK DOKUMENTATZEKO BETEBEHARRA

1. artikulua. Eragiketen frogagiriak egin, eman eta gordetzeko betebeharra.

Enpresaburuak eta profesionalek fakturak edo bestelako frogagiriak egin eta -hala badagokio- eman behar dituzte, beren enpresa-jarduna edo jardun profesionala garatzean egiten dituzten eragiketak direla eta. Halaber, agiri horien kopia edo jatorrizkoa gorde behar dute. Orobat gorde behar dituzte hartzaile diren eragiketak direla-eta jardun hori garatzean beste enpresaburu edo profesional batzuegatik jasotako fakturak edo bestelako frogariak.

Azkenik, enpresaburuak edo profesionalak ez diren beste pertsona eta erakunde batzuek ere egiten dituzten eragiketak direla eta fakturak edo bestelako frogagiriak eman eta gorde behar dituzte, araudi honetan ezarritako moduan.

I. TITULUA ERAGIKETAK DOKUMENTATZEKO BETEBEHARRA, BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGAREN ONDOREETARAKO

I. KAPITULUA ZEIN KASUTAN EGIN BEHAR DEN FAKTURA

2. artikulua. Faktura egiteko betebeharra.

1. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 9ko 7/1994 Foru Legeko 164.bat.3 artikuluekin bat etorritik, enpresaburu edo profesionalek faktura eta haren kopia egin behar

dituzte euren jardunean ari direlarik egiten dituzten ondasun-emate eta zerbitzu-prestazioak direla eta, baita Zergaren kargapean ez daudenengatik eta salbuetsiengatik ere. Araudi honetan ezartzen den moduan bete beharko da eginbehar hori, eta salbuespenak bertan ezarritakoak baizik ez dira izango. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide berezietako batean dauden enpresaburu eta profesionalek ere betebehar hori izango dute.

Halaber, faktura eta haren kopia egin behar dira ondasun-emate eta zerbitzu-prestazioak egin aurretik jasotako ordainketak direla -baldin eta ondasun-emate eta zerbitzu-prestazio horiek direla eta ere faktura egin behar bada-. Salbuespen dira Balio Erantsiaren gaineko Zerga ordaintzetik salbuetsirik dauden ondasun-emateak (Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauan xedatutakoa aplikatuta).

2. Faktura eta haren kopia egin beharko dira, beti, honako eragiketa hauetan:
 - a) Hartzailea enpresaburua edo profesionala denean eta hala diharduenean -kontuan hartu barik eragiketa egiten duen enpresaburua edo profesionala zein tributu-araubideren pean dagoen- eta hartzaileak tributu izaerako edozein eskubide erabili ahal izateko hala eskatzen duenean.
 - b) Europar Batasuneko beste estatu batentzako ondasun-emateak, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 25. artikulua aipatzen direnak.
 - c) Zergari buruzko Foru Arauko 68. Hiru a) eta Bost artikuluan aipatutako ondasun-emateak, baldin eta, manu horretan aipatzen diren arauak aplikatuta, zergaren aplikazio-lurraldean egindakotzat jotzen badira. Hala ere, emate horiei aplikatu beharreko araubide berezia zergari buruzko foru arauaren IX. tituluko XI. kapituluko 3. atalean aipatzen dena denean eta identifikazioko estatu kidea Espainia ez denean, identifikazioko estatua izango da faktura emateko betebeharra dagoen zehaztuko duena.
 - d) Europar Batasunetik kanpo bidali edo garraiatutako ondasun-emateak, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 21. artikuluko 1. eta 2. zenbakietan aipatzen direnak, artikuluko horretako 2. zenbakiko b letran adierazitako zergarik gabeko dendetan egindakoak izan ezik.
 - e) Inoren esku jarri aurretik instalatu edo montatu behar diren ondasun-emateak, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 68.Bi.2 artikuluan adierazitakoak.
 - f) Enpresaburu edo profesional gisa ez diharduten pertsona juridikoentzako eragiketak, kontuan hartu gabe zergaren aplikazio-lurraldean ezarrita dauden ala ez, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 2. artikuluan aipatzen diren administrazio publikoentzako eragiketak.
3. Aurreko zenbakietan adierazitako faktura egiteko betebeharrak araudi honetan ezarritako arauak beteko ditu kasu hauetan:
 - a) Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren IX. tituluko XI. kapituluan aipatzen diren araubide bereziak aplikatu behar zaizkien eragiketarako, identifikazioko estatu kidea Espainiako Erresuma denean.
 - b) Aurreko a) letran adierazi ez diren eragiketetan, baldin eta:
 - a') Ondasun-ematea edo zerbitzu-prestazioa zergaren aplikazio-lurraldean egindakotzat jotzen denean, salbu eta ondasunaren hornitzaileak edo zerbitzuaren emaileak egoitza lurralde horretan ez badu, zergaren subjektu pasiboa zergaren pean dagoen eragiketaren hartzailea bada eta hartzaileak faktura egiten ez badu araudi honen 5. artikuluan ezarritakoarekin bat etorrira.
 - b') Ondasunaren hornitzaileak edo zerbitzuaren emaileak egoitza zergaren aplikazio-lurraldean duenean edo bertan establezimendu iraunkorra duenean, edo, halakorik

ezean, ohiko helbidea edo bizilekua, zeinetik ondasun-ematea edo zerbitzu-prestazioa egiten baitu, eta emate edo prestazio hori ez denean jotzen zergaren aplikazio-lurraldean egindakotzat (aplikatu dakizkiokeen kokapen-erregelekin bat), honako kasu hauetan:

a") Eragiketa dela-eta Europar Batasuneko beste estatu batean tributatu behar denean, zergaren subjektu pasiboa eragiketaren hartzailea denean eta hartzaileak faktura ondasunaren hornitzailearen edo zerbitzuaren emalearen izenean eta kontura egiten ez duenean.

b") Eragiketa Erkidegotik kanpo egindakotzat jotzen denean.

4. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 97. artikuluko Bat artikuluko zatiko 4. zenbakian aipatzen den kontabilitate-frogagiritzat joko da eragiketaren kontabilitate-idazpenen euskarri izateko balio duen edozein dokumentu, baldin eta eragiketa egiten duena Europako Erkidegoan ezarrita ez dagoen enpresaburu edo profesional bat bada.

3. artikulua. Fakturak egin behar diren salbuespenak.

1. Ez da faktura egin behar izango ondoren adierazitako diren eragiketak direla eta, (araudi honetako 2. artikuluko 2. zenbakian aipatutako kasuetan izan ezik):

a) Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 20. artikuluan ezarritakoaren indarrez zerga horretatik salbuetsita dauden eragiketak, ondorengo 2. zenbakian adierazitako eragiketak izan ezik. Hala ere, zerga horri buruzko foru arauko 20. artikuluko Bat artikuluko zatiko 2., 3, 4, 5, 15, 20, 21, 22, 24 eta 25. zenbakiekin bat etorrita zerga horretatik salbuetsita dauden eragiketetan faktura egin beharko da.

b) Baliokidetasun errekararen araubide berezia aplikatu ahal zaien jardueretan ari direlarik enpresaburu edo profesionalek egiten dituzten eragiketak.

Baina faktura egin beharko da, beti, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren pean dauden eta salbuetsita ez dauden ondasun higiezin emateak direla eta.

c) Zergaren araubide erraztua duten jardueretan ari direlarik enpresaburu edo profesionalek egiten dituzten eragiketak, salbu eta eta sortutako kuotak sarreraren kopuruaren arabera zehazten direnean.

Hala ere, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 123.Bat.B.3. artikuluan aipatzen diren aktibo finko materialen emateengatik faktura egin behar da.

d) Beste edozein eragiketa, baldin eta Ogasun Zuzendaritza Nagusiak, enpresa edo lanbide jardueretan aritzeko eragozpenak saihestearren, fakturarik ez emateko baimena ematen badie enpresa-sektore, lanbide-sektore edo enpresa jakinei.

2. Ez da fakturarik egin beharko Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 20. artikuluko Bat artikuluko zatiko 16. zenbakian eta 18. zenbakiko a) eta n) letra bitartean zehaztutako zerbitzugintzak direnean, salbu eta:

Prestazio horiei aplikatu dakizkiokeen kokapen-arauekin bat, zergaren aplikazio-lurraldean edo Europar Batasuneko beste estatu batean egin direla pentsatu behar denean eta zergapean daudenean eta ez salbuetsita.

Prestazio horiei aplikatu dakizkiokeen kokapen-arauekin bat, zergaren aplikazio-lurraldean edo Kanarietan, Ceutan nahiz Melillan egin direla pentsatu behar denean eta aseguru edo kreditu erakunde ez diren enpresaburu edo profesionalek egiten dituztenean, aipatutako lurraldean daukaten jarduera ekonomikoaren egoitzaren edo establezimendu iraunkorraren bitartez.

3. Enpresaburu edo profesionalek ere ez dute faktura egin behar izango nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide bereziko jardueretan ari direlarik egiten dituzten eragiketengatik, ezertan galarazi gabe araudi honetako 16.1 artikuluan xedatutakoa.

Edonola ere, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 129. artikuluko Bat artikuluko zatiko bigarren paragrafoan aipatutako higiezin- emateengatik faktura egin behar da nahitaez.

4. artikulua. Faktura sinplifikatuak.

1. Faktura egiteko betebeharra faktura sinplifikatua eta haren kopia eginez bete daiteke, honako kasu hauetan:

- a) Fakturaren zenbatekoa 400 euro baino gehiago ez bada, Balio Erantsiaren gaineko Zerga barne, edo
- b) Faktura zuzentzaile bat egin behar bada.

2. Aurreko zenbakian xedatutakoa eragotzi gabe, fakturaren zenbatekoa 3000 euro baino gehiago ez bada, enpresaburuak edo profesionalek ere faktura sinplifikatua eta haren kopia egin ahal izango dituzte, (Balio Erantsiaren gaineko Zerga barne), ondoren zehazten diren eragiketetan:

- a) Txikizkako salmentak, emandako produktuen fabrikatzaileek edo egileek egindakoak barne.

Ondore horietarako, txikizkako salmentak gauzako ondasun higigarrien edo azienden emateak izango dira, baldin eta haietan eragiketaren hartzaileak enpresaburu edo profesional gisa ez badihardu, baizik eta emate horien azken kontsumitzaile gisa. Ez dira txikizkako salmentatzat hartuko beren ezaugarri objektiboak, ontziratzea, aurkezte-modua edo kontserbazio-egoera direla eta batez ere enpresek edo profesionalek erabiltzeko diren ondasunak.

- b) Salmentak edo zerbitzuak anbulantzian
- c) Salmentak edo kontsumitzailearen etxean egindako zerbitzuak.
- d) Pertsonen eta haien ekipajearen garraioak.
- e) Jatetxe, taberna, kafetegi, hortxata denda, txokolate denda, eta antzeko establezimenduek eskaintzen dituzten ostalaritza- eta sukaldaritza-zerbitzuak, bai eta momentuan hartzeko diren edari eta janarien hornidura.
- f) Dantza-aretoek eta diskotekek ematen dituzten zerbitzuak.
- g) Telefono-kabinak eta eramailea identifikatzea ahalbidetzen ez duten txartelak erabiliz emandako telefono-zerbitzuak.
- h) Ileapaindegi-zerbitzuak eta edertasun-institutuek emandakoak.
- i) Kirol instalazioen erabilera.
- j) Argazkien errebelatua eta argazkilaritza-estudioek emandako zerbitzuak.
- k) Ibilgailuen aparkalekuak.
- l) Filmen alogera.
- m) Tindategi eta garbitegi zerbitzuak.

- n) Bidesaridun autobideen erabilera.
3. Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak faktura erraztuak egiteko baimena eman ahal izango du aurreko zenbakietan jasotzen ez diren kasuetarako, kasuan kasuko jardun-sektoreko merkataritza- edo administrazio-praktikek edo fakturak egiteko baldintza teknikoek 6. artikuluan aurrez ikusten diren datu eta betekizun guztiak sartzea bereziki zail egiten dutenean.
4. Ezingo da faktura sinplifikaturik egin eragiketa hauek direla eta:
- a) Europar Batasuneko beste estatu batentzako ondasun-emateak, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 25. artikuluan aipatzen direnak.
 - b) Zergari buruzko Foru Arauko 68. Hiru a) artikuluan aipatutako ondasun-emateak, salbu eta foru-arau horren IX. tituluko XI. kapituluko 3. atalean aipatzen den araubide berezia aplikatzekoa zaienean.
 - c) Zergaren aplikazio-lurraldean egindakotzat jotako ondasun-emateak edo zerbitzu-prestazioak, baldin eta ondasunaren hornitzailea edo zerbitzuaren emalea ezarrita ez badago lurralde horretan, zergaren subjektu pasiboa zergapean dagoen eragiketaren hartzailea bada eta azken horrek faktura egiten badu araudi honetako 5. artikuluan ezarritakoaren arabera.
 - d) Araudi honetako 2. 3. b) b') artikuluan aipatzen diren ondasun-emateak eta zerbitzu-prestazioak.

5. artikulua. Hartzaileak edo hirugarren batek faktura egin beharra betetzea.

1. Araudi honen 2. artikuluan aipatzen den betebeharra eragiketen hartzaileek edo hirugarren batzuek bete behar dute materialki. Edozein kasutan, enpresaburua edo profesionala edo faktura egin behar duen subjektu pasiboa arduratuko da titulu honetan ezarritako betebeharrak guztiak betetzeaz.

Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga betebeharrak formalak araupetzen dituen Araudiaren 39. artikuluko 5. zenbakian aipatzen diren pertsonen eta entitateen kasuan (araudi hori Bizkaiko Foru Aldundiaren 2008ko abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen), eragiketen hartzaileek edo hirugarrenek faktura egiteko betebeharra betetzea hautatu badute, bada, orduan, zentsu-aitorpen bat aurkeztu beharko dute arestian aipatutako pertsona eta entitate horiek, eta komunikatu beharko dute zer egunetatik egiten duten hautu hori eta, hala eginez gero, zer egunetan egiten dioten uko eta uko horrek zer egunetatik dituen ondorioak.

2. Eragiketen hartzaileak araudi honetako 2. artikuluan aipatzen den betebeharra materialki bete ahal izateko, baldintza hauek bete beharko dira:
- a) Eragiketak egiten dituen enpresaburu edo profesionalaren eta eragiketon hartzailearen arteko akordioa egon behar da, lehenak bigarrenari eragiketo dagozkien fakturak egiteko baimena emateko. Akordio hori eragiketak egin aurretik sinatu beharko da, eta, hartan, zer eragiketaz ari den zehaztuko da.
 - b) Hala egindako faktura onartu beharko du eragiketa egin duen enpresaburuak edo profesionalak, eta, horretarako, prozedura bati jarraituko zaio. Bi alderdiek erabakitakoa bete beharko du prozedura horrek.
 - c) Fakturak egiten dituen eragiketen hartzaileak kopia bidaliko dio eragiketak egin zituen enpresaburuari edo profesionalari.
 - d) Eragiketak (fakturretan dokumentatzen direnak) egin dituen enpresaburu edo profesionalaren izenean eta kontura egingo dira faktura horiek.

3. Faktura egin beharra betetzeko, enpresaburuek edo profesionalek edo Balio Erantsiaren gaineko Zergaren subjektu pasiboek hirugarren batzuk kontratu ahal izango dituzte, faktura egin ditzatela agintzeko.
4. Eraginketen hartzaileak edo fakturak egiten dituzten hirugarrenak Europar Batasunean ezarrita ez badaude, bakarrik egin ahal izango dituzte fakturak Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiari aurretik jakinazten badiote, kasu honetan izan ezik: eraginketen hartzailea edo fakturak egingo dituen hirugarrena Kanariar Irletan, Ceutan edo Melillan ezarrita badago edo beste herrialde batean, zeinarekin elkarri laguntzeko tresna juridiko bat baitago, Kontseiluaren martxoaren 16ko 2010/24/EB Direktiban (zerga, eskubide jakin batzuei eta bestelako neurriei dagozkien kredituak kobratzeko orduan elkarri laguntzeari buruzkoa) eta Kontseiluaren 904/2010/EB Direktiban (Balio Erantsiaren gaineko Zergaren esparruan administrazio-lankidetzari eta iruzurraren aurkako borrokari buruzkoa) aurrez ikusitako antzeko aplikazio-eremua duena.

II. KAPITULUA FAKTUREN BALDINTZAK

6. artikulua. Fakturaren edukia.

1. Fakturak eta kopiek ondoren aipatzen diren datuak eduki behar dituzte, eta ondoko baldintzak bete behar dituzte beti (horiez gainera baliteke beste datu eta baldintza batzuk ere beharrezkoak izatea beste ondorio batzuetarako, eta bestelako aipamenak sartu behar izatea):

- a) Zenbakia eta, halakorik badago, saila. Sail bereko fakturen zenbakiak korrelatiboak izan behar dira.

Fakturak sailka egin ahal izango dira bidezko arrazoiak daudenean; adibidez, fakturak egin behar dituenak establezimendu batean baino gehiagotan egiten baditu bere eragiketak, edo hainbat motatako eragiketak egiten baditu.

Honako faktura hauek, ordea, beti egin behar dira sailka:

1. Eragiketen hartzaileek edo hirugarren batzuek egiten dituztenak, 5. artikuluan aipatzen direnak, alegia. Faktura- egileok faktura sail bana egin behar dute.
 2. Faktura zuzentzaileak.
 3. 1992ko abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren 1. artikularen bidez onetsitako Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Araudiko bosgarren xedapen gehigarriari jarraituz egiten direnak.
 4. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko arautegiko 84. artikuluko Bat puntuko 2. zenbakiko g) letran ezarritakoari jarraituz egiten direnak.
 5. Abenduaren 29ko 1624/1992 Errege Dekretuaren 1. artikularen bidez onetsitako Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudiko 61 quinquies artikuluko 2. zenbakian ezarritakoari jarraituz egiten direnak.
- b) Zein egunetan egin den.
 - c) Faktura egin behar duenaren zein eragiketaren hartzailearen izen-deiturak edo, sozietateak izanez gero, sozietatearen izen osoa.
 - d) Faktura egin behar duenak eragiketan erabili duen identifikazio fiskaleko zenbakia, Europar Batasuneko estatuetako administrazio eskudunek emana.

Hartzailearen identifikazio fiskaleko zenbakia honako kasu hauetan ere jarri behar da:

1. Batasuneko beste estatu baterako ondasun-ematea bada eta salbuetsita badago Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 25. artikuluari jarraikiz.
 2. Eragiketaren hartzailea eragiketa horri dagokion Balio Erantsiaren gaineko Zergaren subjektu pasiboa bada.
 3. Eragiketa zergaren aplikazio-lurraldean egindakotzat jotzen denean eta faktura egin behar duen enpresaburua edo profesionala lurralde horretan ezarritakotzat hartu behar denean.
- e) Faktura egin behar duenaren helbidea zein eragiketen hartzailearena.

Faktura egin behar duenak edo eragiketaren hartzaileak negozio toki finko bat baino gehiago izanez gero, eragiketak zein egoitza edo establezimendutan gauzatu diren adierazi behar da, baldin eta datu hori kontuan hartu beharrekoa bada eragiketen ziozko zerga-ordainketaren araubidea zehazteko.

- f) Eragiketen deskripzioa. Zerga-oinarria zehazteko behar diren datu guztiak jarri behar dira (Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 78. eta 79. artikuluetan zerga-oinarriaz ezarritako definizioari jarraituz), eta zenbatekoa ere bai, unitate bakoitzaren prezioa sartuta -zerga-kargarik gabe-, bai eta unitate bakoitzaren prezioan sartuta ez dauden deskontu edo beherapen guztiak ere.
- g) Eragiketei aplikatutako zerga-tasa (edo tasak).
- h) Jasanarazitako zerga-kuota, egonez gero, bereiz adierazi behar dena.
- i) Adierazi behar da dokumentatzen den eragiketa zein egunetan egin den edo, aurretiaz ordaindu bada, zein egunetan oraindu den, baldin eta faktura egin den eguna eta ordainketa egin denekoa desberdinak badira.
- j) Faktura batean dokumentatzen den eragiketa zerga ordaintzetik salbuetsita badago, honako hauen aipamena egingo da: Balio Erantsiaren gaineko Zergaren sistema komunari buruzko azaroaren 28ko 2006/112/EE Direktibako xedapenak edo Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko manuak. Edo eragiketa salbuetsita dagoela adierazik oda.

Halaber, letra honetan xedatutakoa aplikatu behar da hainbat eragiketa faktura batean dokumentatzen direnean eta goian esandako inguruabarrak eragiketa horietako batzuetan bakarrik gertatzen direnean.

- k) Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 25. artikuluan aipatzen diren garraiobide berrien emateen kasuan, haien ezaugarriak, lehen aldiz martxan jarri zireneko eguna eta ematea egin arte ibilitako distantziak edo egindako nabigazio edo hegaldi orduak adieraziko dira.
- l) Ematearen edo prestazioaren eskuratzailleak edo hartzaileak faktura egiten badu -hornitzailearen edo prestatzailearen orde-, «Hartzaileak egin beharreko faktura» aipamena jasoko da.
- m) Zergaren subjektu pasiboa eragiketaren eskuratzaillea edo hartzailea bada, «Subjektu pasiboaren inbertsioa» aipamena jasoko da.
- n) Bidaia-agentzien araubide berezia aplikatzen bada, «Bidaia-agentzien araubide berezia».
- o) Ondasun erabili, arte-objektu, antzinateko objektu edo bilduma-objektuen araubide berezia aplikatzen bada, «Ondasun erabilien araubide berezia», «Arte-objektuen araubide berezia» edo «Antzinateko objektu eta bilduma-objektuen araubide berezia».

- p) Kutxa-irizpidearen araubide berezia aplikatzen bada, "kutxa irizpidearen araubide berezia" esakunea.
2. Bereiz zehaztuko da faktura berean dokumentatzen diren eragiketetako bakoitzari dagokion zerga-oinarriaren zatia, honako kasu hauetan:
 - a) Balio Erantsiaren gaineko Zergatik salbuetsita dauden eragiketak eta inguruabar hori gertatzen ez den eragiketak dokumentatzen direnean.
 - b) Eragiketen harzailea eragiketa horiei dagokien Balio Erantsiaren gaineko Zergaren subjektu pasiboa denean, eta inguruabar hori gertatzen ez den beste eragiketa batzuetan.
 - c) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren tasa desberdinen peko eragiketak daudenean.
 3. Araudi honetako 2. 3. b) b') a'') artikuluan aipatzen diren eragiketen kasuan, faktura egin behar duenak artikuluko honetako 1. zenbakiko f), g) eta h letretan jasotako informazioa ez emateko aukera izango du. Haren ordean, zergapean dagoen hornitutako ondasun eta zerbitzuen zenbatekoa adieraziko du, ondasun eta zerbitzu horien kopuruaren edo zenbaterainoen aipamena eginez.
 4. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 97. Bat artikuluan xedatutako ondoretarako, artikuluko honetako datu eta betekizun guztiak dituen faktura bakarrik hartuko da halakotzat.

7. artikulua. Faktura sinplifikatuen edukia.

1. Faktura sinplifikatuak eta haien kopiek ondoren aipatzen diren datuak eduki behar dituzte eta ondoko baldintzak bete behar dituzte (horiez gainera baliteke beste datu eta baldintza batzuk ere beharrezkoak izatea beste ondorio batzuetarako, eta bestelako aipamenak sartu behar izatea):

- a) Zenbakia eta, halakorik badago, saila. Sail bereko fakturen zenbakiak korrelatiboak izan behar dira.

Faktura sinplifikatuak sailka egin ahal izango dira bidezko arrazoiak daudenean eta beste kasu hauetan (besteak beste):

1. Faktura sinplifikatua egin behar duenak establezimendu batzuk dituztenean, zeinetatik bere eragiketak egiten baititu.
2. Faktura sinplifikatua egin behar duenak eragiketa desberdinak egiten baditu.
3. Eragiketen hartzaileek edo hirugarren batzuek egiten dituztenak, araudi honetako 5. artikuluan aipatzen direnak, alegia. Faktura-egileok faktura sail bana egin beharko dute.
4. Faktura zuzentzaileak.

Egutegiko urte berean egindako eragiketak dokumentatzeko enpresaburuak edo profesionalak artikuluko honetan eta 6. artikuluan xedatutakoaren arabera fakturak egiten baditu, batzuk eta besteak sailka bereizko dira.

- b) Zein egunetan egin den.
- c) Adierazi behar da dokumentatzen den eragiketa zein egunetan egin den edo, aurretiaz ordaindu bada, zein egunetan ordaindu den, baldin eta faktura egin den eguna eta ordainketa egin denekoa desberdinak badira.

- d) Identifikazio fiskaleko zenbakia, faktura egin behar duenaren izen-deiturak edo, sozietateak izanez gero, sozietatearen izen osoa.
 - e) Emandako ondasun mota edo egindako zerbitzu-prestazio mota.
 - f) Aplikatutako zerga-tasa eta, nahi izanez gero, «BEZa barne» aipamena.

Halaber, faktura berean Balio Erantsiaren gaineko Zergaren tasa desberdinen peko eragiketak daudenean, bereiz zehaztuko da eragiketa bakoitzari dagokion zerga-oinarriaren zatia.
 - g) Kontraprestazio osoa.
 - h) Faktura zuzentzaileen kasuan, berariaz eta argiro adieraziko da zein den zuzendutako faktura eta zein zehaztapan aldatzen diren.
 - i) Araudi honetako 6.1 artikuluko j) eta p) bitarteko letretan azaltzen diren kasuetan, letra horietan dauden aipamenak jarri beharko dira.
2. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 97.Bat artikuluan xedatutako ondoreetarako, eragiketaren hartzailea enpresaburua edo profesionala bada eta eskatzen badu, faktura sinplifikatuaren egileak, gainera, datu hauek jasoko ditu:
 - a) Identifikazio fiskaleko zenbakia, Europar Batasuneko estatuetako administrazio eskudunek emana.
 - b) Jasanarazitako zerga-kuota, egonez gero, bereiz adierazi behar dena.
 3. Halaber, aurreko zenbakian adierazitako datuak jasoko dira eragiketaren hartzailea enpresaburua edo profesionala ez bada ere eta hala eskatzen badu tributu izaerako edozein eskubide erabiltzeko.
 4. Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiaren ustez kasuan kasuko jardun-sektoreko merkataritza-edo administrazio-praktikek edo fakturak egiteko baldintzek gomendatzen badute aurreko zenbakietan adierazitako aipamenez gainera gehiago sartzea, hau egin ahal izango du:
 - a) Aurreko zenbakietan adierazitako aipamenez gainera beste batzuk sartzeko eskatu ahal izango du, baina ezingo da inola ere eskatu araudi honetako 6. artikuluan ezarritako informazioa baino gehiago.
 - b) Aurreko 1. zenbakiko a), c), f), g) eta i) letretan eta 2. zenbakian adierazitako aipamenak jasotzen ez dituzten faktura sinplifikatuak egiteko baimena eman ahal izango du, betiere, 1. zenbakiko f) edo g) letretako aipamenak ez egitearen kasuan, zerga-kuota edo hura kalkulatzeko datuak jasotzen badira.

Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak artikulua honetan aipatzen diren erabakien publikitate egokia egingo du.

8. artikulua. Fakturak egiteko moduak.

1. Fakturak egiteko, edozein bide erabili ahal izango da (paperean edo formatu elektronikoa), betiere bide horrek faktura-egileari aukera ematen badio -faktura egiten denetik eta fakturaren gordetze-aldi guztian- fakturaren jatorriaren egiazkotasuna eta edukiaren osotasuna eta irakurgarritasuna bermatzeko.
2. Fakturaren -paperean edo formatu elektronikoa- jatorriaren egiazkotasunak bermatuko du faktura egin behar duenaren identitatea zein faktura ematen duenarena.

Fakturaren edukiaren osotasunak bermatuko du eduki hori ez duela inork aldatu.

3. Zuzenbidean onartutako edozein frogabideren bidez bermatu ahal izango dira fakturaren (paperean edo formatu elektronikoa) jatorriaren egiazkotasuna eta edukiaren osotasuna.

Zehazki, subjektu pasiboaren enpresa-jardun edo jardun profesionaleko ohiko kudeaketa-kontrolen bidez bermatu ahal izango dira fakturaren jatorriaren egiazkotasuna eta edukiaren osotasuna.

Kudeaketa-kontrol horiek aukera eman behar dute fakturaren eta fakturak dokumentatzen duen ondasun-ematearen edo zerbitzu-prestazioaren arteko beharrezko lotura ezarriko duen auditoria fidagarriko arrastoa sortzeko.

9. artikulua. Faktura elektronikoa.

1. Araudi honetan ezarritakoa bete eta formatu elektronikoa egin eta jasotzen den faktura da.
2. Faktura elektronikoa egiteko, beharrezkoa izango da hartzaileak baimena ematea.

10. artikulua. Faktura elektronikoaren osotasuna eta egiazkotasuna.

1. Araudi honetako 8. artikuluan adierazitako bideetako edozeinen bidez bermatu ahal izango dira faktura elektronikoaren osotasuna eta egiazkotasuna.

Zehatzago, modu hauetakoren baten bidez bermatuko dira faktura elektronikoaren jatorriaren egiazkotasuna eta osotasuna:

- a) Sinadura elektronikoa aurreratuen bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1999ko abenduaren 13ko 1999/93/EE Direktibako 2.2 artikuluko xedatutakoarekin bat. Haren bidez, sinadura elektronikorako esparru komunitario bat ezartzen da, zeina ziurtagiri onartu batean oinarritzen baita eta sinadura elektronikoak sortzeko gailu seguru batean sortzen baita (direktiba horretako 2. artikuluko 6. eta 10. zenbakiekin bat) edo ziurtagiri onartu batean oinarritzen baita (direktiba horretako 2. artikuluko 10. zenbakiekin bat).
 - b) Datuen truketze elektronikoa baten bidez, datuen truketze elektronikoen alderdi juridikoei buruzko Batzordearen 1994ko urriaren 19ko 94/820/EE Gomendioaren 1. eranskineko 2. artikuluan definitzen denez, truketze horri buruzko erabakiak datuen egiazkotasuna eta osotasuna bermatzen dituen prozeduren erabilera aurrez ikusten duenean.
 - c) Interesdunek Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiarri erabili aurretik jakinarazi dizkieten eta zuzendaritza horrek baliozkotu dituen beste bide batzuen bidez.
2. Hartzaile berari aldi beren bidali zaizkion faktura elektronikoa batzuen loteen kasuan, nahikoa izango da faktura guztietan agertzen diren datu berdinak behin aipatzea, betiere faktura bakoitzean informazio osoa eskuragarri badago.

11. artikulua. Fakturak egiteko epea.

1. Fakturak eragiketa egiten den momentuan egin behar dira.

Hala ere, eragiketaren hartzailea enpresaburua edo profesionala bada (eta hala badihardu), eragiketari dagokion zerga sortu eta hurrengo hilean egin behar dira fakturak, hain zuzen, hil horren 16aren aurretik.

2. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 75.Bat.8 artikuluan adierazitako ondasun-emateetan, eskuratzailerentzako ondasunen garraioa hasi eta hurrengo hilean egin behar dira fakturak, hain zuzen, hil horren 16aren aurretik.
3. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 7/1994 Foru Arauko IX. tituluko X. kapituluaren araututako kutxa irizpidearen arabide bereziari atxikitako eragiketetan, eragiketa horiek

egiten diren unean egin beharko da faktura, salbu eta eragiketako hartzailea enpresaburu edo profesionala bada eta horrela badihardu; hala denean, eragiketa egin eta hurrengo hilaren 16a baino lehen egin beharko dira fakturak.

12. artikulua. Fakturak zein moneta eta hizkuntzatan egin eta adierazi.

1. Fakturretan agertzen diren zenbatekoak edozein monetatan adierazi ahal izango dira; baina kasuan kasu jasanaraziko den zergaren zenbatekoa eurotan adierazi behar da. Horretarako, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 79.Hamaika artikuluan zehazten den kanbio-tasa erabiliko da.
2. Faktura edozein hizkuntzatan egin ahal izango dira. Baina, enpresaburu, profesional edo subjektu pasiboaren tributu-egoera egiaztatzeko edozein jardueratarako Zerga Administrazioak beharrezkotzat jotzen badu, administrazio horrek eskatu ahal izango du Euskal Autonomia Erkidegoan ofizial ez den hizkuntza batean egindako fakturak, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aplikazio-lurraldean egindako eragiketei dagozkienak, hizkuntza ofizial batera itzultzeko. Orobat lurralde horretan ezarrita dauden enpresaburu edo profesional edo subjektu pasiboek jasotako fakturen itzulpena eskatu ahal izango dute.

13. artikulua. Faktura laburbiltzaileak.

1. Hartzaile batentzat egutegiko hil batean zehar hainbat egunetan egindako eragiketak faktura bakarrean bil daitezke.
2. Faktura laburbiltzaileak haietan dokumentatzen diren eragiketak egin direneko hil naturala amaitu aurretik egin behar dira. Hala ere, halako fakturen hartzailea enpresaburua edo profesionala bada (eta hala badihardu), eragiketak egin eta hurrengo hilean egin behar dira fakturak, hain zuzen, hil horren 16aren aurretik.
3. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 75.Bat.8 artikuluan adierazitako ondasun-emateetan, eskuratzailereantzako ondasunen garraioa hasten den hilaren hurrengoan egin behar dira fakturak, hain zuzen, hil horren 16aren aurretik.

14. artikulua. Fakturen kopiak.

1. Enpresaburuek eta profesionalek edo subjektu pasiboek faktura bakoitzaren jatorrizko ale bat besterik ezingo dute egin.
2. Jatorrizko fakturen kopiak kasu hauetan baino ez dira baimenduko:
 - a) Ondasun-emate edo zerbitzu-prestazio berean hartzaile bat baino gehiago dagoenean. Kasu horretan, hartzaile bakoitzari dagokion zerga- oinarriaren zatia eta jasanarazitako kuota idatziko dira jatorrizkoan zein kopia bakoitzean.
 - b) Edozein arrazoiengatik jatorrizkoa galdu denean.
3. Artikulu honetako aurreko zenbakian aipatutako kopiek jatorrizko agiriek besteko eraginkortasuna izango dute.
4. Jatorrizkoaren kopia guztietan «kopia» direla adierazi beharko da.

15. artikulua. Faktura zuzentzaileak.

1. Jatorrizko fakturak araudi honetako 6. edo 7. artikuluko betekizunetako bat edo betetzen ez dituzenean, faktura zuzentzailea egin beharko da; hargatik eragotzi gabe artikuluko honetako 6. zenbakian ezarritakoa.
2. Halaber, faktura zuzentzailea egingo da honako kasu hauetan: janarazitako kuotak txarto kalkulatu direnean edo zerga-oinarria aldatzea dakarten inguruabarrak gertatzen direnean

(Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 80. artikuluan xedatutakoaren arabera).

Dena den, ez da beharrezkoa izango faktura egitea baldin eta zerga-oinarria aldatu bada hartzaile bera duen ondorengo hornidura dela-eta salgaiak edo ontzi eta enbalajeak itzultzeagatik eta faktura eman bada salgaiok edo ontzi eta enbalajeok emateko eragiketa dela eta. Halakoetan, hornidura hori dela eta egindako fakturan bertan egin ahal izango da zuzenketa, ondorengo eragiketaren zenbatekotik itzuli diren salgaien edo ontzi eta enbalajeen zenbatekoa kenduz. Hala egin ahal izango da zuzenketa, baldin eta eragiketa guztiei aplikatu dakiekeen zerga-tasa berdina bada, emaitza positiboa ala negatiboa den kontuan hartu gabe.

3. Aurreko zenbakien arabera faktura zuzentzailea egitera behartzen duten inguruabarrak gertatu direla jakin bezain laster, faktura egin behar duenak hala egin behar du, salbu eta lau urte pasatu badira zergaren sortzapenetik edo Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 80. artikuluan aipatutako inguruabarrak gertatu badira.
4. Zuzenketa egiteko, beste faktura bat egingo da, zuzendutako fakturaren identifikazio-datuak jasoko dituena. Zuzentze-agiri bakarrean egingo ahal izango da faktura batzuen zuzenketa, betiere zuzendutako faktura guztien identifikazio-datuak jasotzen badira. Baina, baldin eta deskontuak edo eragiketa-bolumenengatik hobariak emateagatik zerga-oinarria aldatu bada eta Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak hala baimendu badu, ez da beharrezkoa izango zuzendutako fakturak identifikatzea; nahikoa izango da fakturari dagokion epealdia zehaztea.
5. Faktura zuzentzaileak araudi honetako 6. edo 7. artikuluan ezartzen diren betekizunak beteko ditu.

Faktura zuzentzaile bat egiten denean, 6. artikuluko 1. zenbakiko f), g) eta h) letretako datuak zuzenduta adieraziko dira. Zehatzago, 6. artikuluko 1. zenbakiko f) eta h) letretan arautzen diren datuak honela jasoko dira: bai zuzenean zuzenketaren zenbatekoa adieraziz (kontuan hartu gabe gehiago edo gutxiago den), bai egindako zuzenketaren ondoriozko datuak jarritz (kasu horretan ere, zuzenketaren zenbatekoa adieraziko da).

Faktura sinplifikatu zuzentzaile bat egiten denean, 7.1.f) eta g) letretan eta 7.2.b) letran (hala badagokio) aipatutako datuek egin den zuzenketa agertuko dute, bai zuzenean zuzenketaren zenbatekoa adieraziz, bai egindako zuzenketaren ondoriozko datuak jarritz (kasu horretan ere, zuzenketaren zenbatekoa adieraziko da) .

6. Faktura zuzentzaileak 1. eta 2. zenbakietan ezarritako arrazoiak direla eta egindakoak baino ez dira.

Hala ere, aurretik egindako faktura sinplifikatuen ordeztu edo truke egiten direnak ez dira zuzentzaileak izango, baldin eta bere garaian egindako faktura sinplifikatuek 7.1 artikuluan ezartzen diren baldintzak betetzen badituzte.

16. artikulua. Eragiketarako dokumentatzeko behararen berezitasunak Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide berezietan.

1. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 131.2 artikuluekin bat nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzako araubide bereziko pertsonen ondasun edo zerbitzuak eskuratzean konpentsazioen itzulketa egin behar duten enpresaburuek edo profesionalek ordainagiria egingo dute eragiketa horiek direla eta, eta, haietan, datu hauek jasoko dituzte:
 - a) Saila eta zenbakia. Sail bereko ordainagirien zenbakiak korrelatiboak izan behar dira.
 - b) Izen-abizenak, sozietatearen izen osoa, identifikazio fiskaleko zenbakia eta helbidea, faktura egin behar duenarenak eta nekazaritza, abeltzaintza, baso edo arrantza-

ustiategiaren titularrarenak, nekazaritza, abeltzaintzaren eta arrantzaren araubide berezian dagoela adierazita.

- c) Emandako ondasunen eta egindako zerbitzu-prestazioen deskripzioa eta eragiketak non eta noiz burutu diren materialki eta benetan.
- d) Ondasun eta prestazioen prezioa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 130.Bost artikuluan xedatutakoaren arabera zehaztua.
- e) Aplikatutako konpentsazio-ehunekoa.
- f) Konpentsazioaren zenbatekoa.
- g) Nekazaritza, abeltzaintza, baso edo arrantza-ustiategiaren titularraren sinadura.

Enpresaburu edo profesional hauek ordainagiriaren kopia bat emango diote ondasun edo zerbitzuen hornitzaileari, hots, nekazaritza, abeltzaintza, baso edo arrantza-ustiategiaren titularrari.

Halaber, araudi honetan fakturei buruz dauden gainerako xedapenak aplikatuko zaizkie -dagokion neurrian- zenbaki honetan aipatzen diren ordainagiriei.

2. Titulu honetan ezarritako betebeharez gainera, ondasun erabili, arte-objektu, antzinateko objektu edo bilduma-objektuen araubide berezia aplikatzen duten subjektu pasiboek honako betebehaz espezifiko hauek beteko dituzte araubide berezi horren eraginpeko eragiketak direla eta:
 - a) Enpresaburu edo profesionalak ez diren baina hala dihardutenei egindako eskuratzetako bakoitza justifikatzen duen agiria egitea. Eskuratzailleak eskuratzegiri hori sinatu beharko du, eta, agiriak 6.1 artikuluan ezartzen diren datuak eta betekizunak izango ditu.
 - b) Betiere, 6.1.o) edo 7.1.i) artikuluan adierazitako aipamena jasoko da araubide bereziaren peko emateak direla eta subjektu pasibo birsaltzaileek egiten dituzten fakturretan.
 - c) Bestalde, araubide bereziaren peko emateak direla eta subjektu pasibo birsaltzaileek egiten dituzten fakturretan ezingo da bereiz jaso Balio Erantsiaren gaineko Zergagatik jasanarazitako kuota, zeina eragiketaren prezio osoaren barruan sartutakotzat hartuko baita.
3. Bidaia-agentzien araubidea aplikatzen den eragiketetan, berriz, subjektu pasiboak ez dira behartuta egongo jasanarazitako kuota fakturan bereiz jartzera, eta zerga —hala dagokionean— eragiketaren prezioan sartuta dagoela ulertu beharko da.

Betiere, araudi honetako 6. artikuluko 1. zenbakiko n) letran eta 7.artikuluko 1. zenbakiko i) letran adierazitako aipamena jasoko da araubide berezi honen peko emateak dokumentatzen diren fakturretan.

4. Enpresaburu edo profesionalak ondasunak ematean baliokidetasun errekarua jasanarazi behar dutenean, ondasun-ematearen faktura bereiz egin behar dute beti, eta fakturan aplikatutako errekaru-tasa eta errekaruaren zenbatekoa adierazi behar dituzte.

Baliokidetasun errekaruaren araubide berezia duten txikizkako merkatariak, aldi berean enpresa eta lanbide jardueren beste sektoreren batean badihardute, salgaien erosketak faktura desberdinetan dokumentatuko dituzte, aipatutalpe araubidea duten jardueretarako erositako salgaiak eta gainerako jardueretarako erositakoak bereizteko.

III. KAPITULUA FAKTURAK IGORTZE

17. artikulua. Fakturak igortzeko betebeharra.

Eragiketen fakturak araudi honetako I. tituluko I. eta II. kapituluetan xedatzen denaren arabera egiten direnean, faktura egin behar dutenek edo haien izenean dihardutenek jatorrizkoak bidali behar dizkiete eragiketen hartzaileei.

18. artikulua. Fakturak igortzeko epea.

Fakturak igortzeko betebeharra -zeina 17. artikuluan ezartzen den- une honetan bete behar da: fakturak egiten diren une berean; edo, hartzailea enpresaburua edo hala jarduten duen profesional bat denean, eragiketa horri dagokion zergaren sortzapena gertatu osteko hileko 16a baino lehen; edo, kutxa-irizpidearen araubide berezia aplikatu behar zaien eragiketen kasuan, eragiketa egin osteko hileko 16a baino lehen.

IV. KAPITULUA FAKTURAK ETA BESTE AGIRI BATZUK GORDETZEA

19. artikulua. Fakturak eta beste agiri batzuk gordetzeko betebeharra.

1. Enpresaburuek edo profesionalak, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arauan ezarritako epean zehar, agiri hauek gorde behar dituzte:
 - a) Jasotako fakturak.
 - b) 2. artikuluko 1. eta 2. zenbakien arabera egindako fakturen kopia edo matrizeak.
 - c) Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 97.Bat.4 artikuluan aipatzen diren kontabilitate-frogagiriak.
 - d) Araudi honetako 16,1. artikuluan aipatutako ordainagiriak. Faktura-egileak jatorrizkoa gorde behar du; ustategiaren titularrak, berriz, kopia.
 - e) Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 97.Bat.3 zenbakian aipatzen diren dokumentuak, inportazioak badira.

Betebehar hori Balio Erantsiaren gaineko Zergaren araubide berezietan dauden enpresaburu edo profesionalak ere badute, bai eta enpresaburuek edo profesional izan gabe Zergaren subjektu pasibo direnek ere (azken horien betebeharra a) eta c) letretan aipatutako agiriei bakarrik dagokie).

2. Agiriak beren jatorrizko edukiarekin gorde behar dira, eta, gainera, araudi honetan ezarritako epeetan eta baldintzekin.
3. Hirugarren batek bete ahal izango ditu -materialki- aurreko zenbakietan aipatzen diren betebeharrak. Pertsona horrek beti jardungo du enpresaburu edo profesionalaren izenean eta kontura, zeina kapitulu honetako betebeharrak betetzeaz arduratuko baita beti.
4. Hirugarren pertsona hori Europar Batasunean ezarrita ez badago, bakarrik bete ahal izango du betebehar hori Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiari aurretik jakinazten badio, hirugarren pertsona hori Kanariar Irletan, Ceutan edo Melillan ezarrita badago edo beste herrialde batean, zeinarekin elkarri laguntzeko tresna juridiko bat baitago Kontseiluaren martxoaren 16ko 2010/24/EB Direktiban (zerga, eskubide jakin batzuei eta bestelako neurriei dagozkien kredituak kobratzeko orduan elkarri laguntzeari buruzkoa) eta Kontseiluaren 904/2010/EB Direktiban (Balio Erantsiaren gaineko Zergaren esparruan administrazio-lankidetzari eta iruzurraren aurkako borrokari buruzkoa) aurrez ikusitako antzeko aplikazio-eremua duena.

20. artikulua. Fakturak eta beste agiri batzuk gordetzeko moduak.

1. Araudi honetako 19. artikuluan aipatzen diren agiriak . -paperean edo formatu elektronikoa- gordetzeko, gorde beharra duenari fakturaren jatorriaren egiazkotasuna, edukiaren osotasuna eta irakurgarritasuna 8. artikuluan ezarritako baldintzetan bermatzea ahalbidetzen dion edozein bide erabili ahal izango da. Halaber, bide horrek aukera eman behar du Zerga Administrazioak agiriok arrazoi barik itxaron beharrik izan gabe eskuratu ahal izateko.
2. Bereziki, betebeharrak hau bitarteko elektronikoen bidez bete ahal izango da. Ondore horietarako, agiriak bitarteko elektronikoen bidez gordetzea hau da: agiriak tratamenduko ekipamendu elektronikoen bidez (zenbaki-konpresioa eta datuen biltegiatzea barne) eta bitarteko optikoak edo bestelako bitarteko elektromagnetikoak erabiliz gordetzea.

21. artikulua. Fakturak eta beste agiri batzuk bitarteko elektronikoen bidez gordetzea.

1. Agiriak bitarteko elektronikoen bidez gordetzeko modalitateak, araudi honetako 20. artikuluan aipatzen denak, hauek ziurtatu behar ditu: faktura jaso edo egin den jatorrizko formatuan irakurri ahal izatea, bai eta lotutako datuak, sinadura eta beste elementu baimendu batzuk ere (halakorik badago), fakturaren jatorriaren egiazkotasuna eta edukiaren osotasuna bermatzen dituztenak.

Edozein momentutan, agiriak lengoai irakurgarri batera aldatzeko eskatu ahal izango dio Zerga Administrazioak agirion igorleari edo hartzaileari.

2. Bitarteko elektronikoen bidez gordetako agiriak kudeatzeko sistemak bermatuko du datuak linean eskuratu ahal izatea eta Zerga Administrazioak eskatzen duenean agiriak modu remotoan kargatu eta erabili ahal izatea arrazoi barik itxaron behar izan gabe.

Agiriak erabat eskuragarri egongo dira baldin eta linean ikusi, modu selektiboan bilatu, kopiatu edo deskargatu edo inprimatu ahal badira.

22. artikulua. Fakturak eta beste agiri batzuk gordetzeko lekua .

1. Kapitulu honetan xedatutakoari dagokionez, fakturak eta beste agiri batzuk gorde beharra duen enpresaburuak edo profesionalak edo subjektu pasiboak erabaki ahal izango du betebeharrak hori gauzatzeko duen; baina bere tributu-egoera egiaztatzen diharduen zerga administrazioaren esku jarri beharko du modu elektronikoa gordetako dokumentazio eta informazio guztia, hark eskatzen duenean eta arrazoi barik itxaron behar izan gabe.
2. Agiriak Espainiatik kanpo gordetzen direnean, betebeharrak hori bakarrik joko da baliozkotzat, baldin eta informazioa eta dokumentazioa gordetzeko erabiliko bitarteko elektronikoen bidez bermatzen badute Zerga Administrazioak informazio eta dokumentazio hori linean eskuratu, modu remotoan kargatu eta erabiltzeko aukera.

Enpresaburu edo profesionalak edo subjektu pasiboak betebeharrak hori lurralde horretatik kanpo gauzatu nahi badute, Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi beharko diote aurretik.

23. artikulua. Zerga Administrazioak fakturak eta beste agiri batzuk eskuratzea.

Araudi honetako 19. artikuluan aipatzen den betebeharrak bitarteko elektronikoen bidez gauzaten denean, enpresaburu edo profesionalaren edo subjektu pasiboaren tributu-egoera egiaztatzen diharduen Zerga Administrazioak edozein organoari bermatu behar zaio gordetako dokumentuak linean eskuratzea zein modu remotoan kargatu eta erabiltzea. Betebeharrak hau dokumentuak gordetzen diren lekuan gordetzen direla bete beharko da.

V. KAPITULUA BESTE XEDAPEN BATZUK

24. artikulua. Fakturazioaren arloko eztabaidak ebaztea.

Erreklamazio ekonomiko-administratiboak jartzeari dagokionez, tributu-izaerakotzat joko dira araudi honetan aipatzen diren fakturak eta beste agiri batzuk egin, zuzendu edo igortzea dela eta sor daitezkeen eztabaidak, tributu izaerako zuzenbideko egitate edo gaietan oinarrituta badaude.

II. TITULUA DOKUMENTATZEKO BETEBEHARRAK BESTE TRIBUTU BATZUEI DAGOKIENEZ ETA BESTE ARLO BATZUETAN

25. artikulua. I. tituluko xedapenak aplikatzea.

I. tituluko xedapenak beste tributu, diru-laguntza edo laguntza publiko bati aplikatu ahal izango zaizkio, bakoitzaren araudian eta araudi honetako 26. artikuluan ezarritakoaz gainera.

26. artikulua. Eragiketak dokumentatzeko betebeharraren berezitasunak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan .

1. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergadunek beren jardunean ari direla egiten dituzten eragiketak direla- eta faktura eta haren kopia egin beharko dituzte, araudi honetan ezarritako baldintzetan, baldin eta jarduera ekonomikoen etekinak lortu badituzte, kontuan hartu gabe zein araubideren pean dauden Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondorioetarako
2. Balio Erantsiaren gaineko Zergako nekazaritza, abeltzaintza eta arrantzaren araubide bereziko jardueren ondorioz egiten diren eragiketen kasuan, berriz, eragiketa horien hartzaileak araudi honetako 16.1 artikuluan aipatzen den ordainagiria eginez gauzako dira aurreko zenbakian ezarritako betebeharrak.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa. Fakturazio-betebeharrak beste eremu batzuetan.

Araudi honetan xedatutakoa bete behar da, hargatik eragotzi gabe enpresaburuek edo profesionalek beren jardun profesionaleko merkataritza-, finantza- eta aseguru-arloetan faktura egin, eman eta gordetzeari dagokionez eska daitezkeen betebeharrak, diru-laguntza edo laguntza publikoen arlokoak edo kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsarako erabiliko direnak.

Bigarrena. Energia elektrikoaren emate jakin batzuen fakturazioa.

1. Sistemaren operadoreak dokumentatu behar ditu Sektore Elektrikoari buruzko 2013ko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 28. eta 30. artikuluetan zein Energia elektriko sortzeko merkatua antolatu eta arautzen duen 1997ko abenduaren 26ko 2019/1997 Errege Dekretuaren 2. artikuluan aipatzen diren elektrizitatearen ekoizpen-merkatuari lotutako energia elektrikoaren trukeak, Sektore Elektrikoari buruzko legeak eta hura garatzen duen araudiak ematen dizkion funtzioen arabera.
2. Energia elektrikoaren emateak operadore horrek —energiaren enpresa hornitzaileen izenean eta haien kontura— emandako fakturen bidez dokumentatu behar dira, eta, haietan, araudi honen 6. artikuluko 1. zenbakian aipatzen diren datu guztiak jaso behar dira. Eragiketaren hartzailea identifikatzeko datuen kasuan, sistemaren operadorearen identifikazio-datuak adierazi behar dira, eta azken horrek emandako fakturaren jatorrizkoa gorde beharko du, eta kopia bat igorri hornitzaileari.

3. Sistemaren operadoreak faktura bana egingo du eskuratzailerako, bakoitzari egindako emateak jasotzeko, eta, bertan, araudi honen 6. artikuluko 1. zenbakian aipatzen diren datu guztiak jaso behar ditu. Fakturaren egilea identifikatzeko datuen kasuan, sistemaren operadorearen identifikazio-datuak adierazi behar dira, eta azken horrek emandako fakturaren jatorrizkoa gorde beharko du, eta kopia bat igorri hornitzaileari.
4. Araudi honetan xedatutakoari dagokionez, xedapen gehigarri honen aurreko zenbakietan aipatutako dokumentuetatik sistemaren operadoreak gorde behar dituenak fakturatzat hartuko dira, eta Zerga Administrazioaren esku geratuko dira, preskripzio- eta iraungitze-epetan zehar, faktura horietan islatutako energia elektrikoaren emateak direla-eta egin beharreko egiaztapenak egin ditzan.
5. Sistemaren operadoreak hirugarren batzuekin egindako eragiketen urteko aitortpenean zerrendatu behar ditu energia elektrikoaren hornitzaileek zein eskuratzailerak eginiko eragiketak, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga betebeharrak formalak araupetzen dituen Araudian ezarritako baldintzetan (araudi hori Bizkaiko Foru Aldundiaren 2008ko abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuak onetsi zuen), baina erregistratu behar ditu baldin eta xedapen gehigarri honen aurreko zenbakietan adierazitakoaren arabera dokumentatu badira. Aitorpenaren aldi hornitzaile eta eskuratzailerako bakoitzak eginiko eragiketen zenbateko osoa adierazi beharko du aitortpen horretan. Bertan, gainera, erosketa gisa jasoko dira hornitzaile bakoitzari egotzitako energia-emateak, eta, salmenta gisa, berriz, eskuratzailerako bakoitzari egotzitako energia-eskuratzeak.
6. Edozelan ere, xedapen gehigarri honetan aipatzen diren eragiketei dagokienez, sistemaren operadoreak laguntza eman behar dio Zerga Administrazioari, eta, hala, eragiketa horien tratamenduari dagokionez tributuen arloan garrantzia duen edozein datu, txosten edo aurrekari eskaini behar dio.

Fakturaturako aldiari dagozkion kobratzeko eskubideak eta ordaintzeko betebeharrak epe osorako energia elektrikoaren emate bakarrari lotuta daudela ulertuko da.

7. Sistemaren operadoreak hirugarren bat gaitu ahal izango du entitate hornitzaileen eta eskuratzaileraren artean kontrako alderdi zentral gisa aritu dadin. Hala, ulertuko da, ondorio guztietarako, ezen erakunde hornitzaileek hirugarren horri egiten dizkiotela energia elektrikoaren emateak eta erakunde eskuratzailerak hirugarren horri erosten dizkiotela. Kasu horretan, eragiketaren hartzailearen eta faktura egin behar duenaren datuen ordez kontrako alderdi zentral gisa gaitutako hirugarren horren datuak jarriko dira, zeinak bere egingo baititu xedapen gehigarri honek kontrako alderdi zentral gisa gaitu duen sistemaren operadoreari fakturazioari buruz esleitzen dizkion betebeharrak.

Hirugarrena. Bidaia-agentziak bitartekari gisa edo inoren kontura ari direneko zerbitzu-prestazio batzuk fakturatzeko .

1. Xedapen gehigarri honetan ezarritakoaren arabera egingo dira honako baldintza hauek betetzen dituzten zerbitzu-prestazioak dokumentatzen dituzten fakturak:
 - a) Zerbitzu-prestazioen kontratazioan beren izenean edo inoren kontura bitartekari gisa dihardutenak bidaia-agentzietako enpresaburuak edo profesionalak izatea, sektorearen araudiarekin bat.
 - b) Zerbitzu horien hartzailea enpresaburua edo profesionala izatea, edo enpresaburua edo profesionala ez den pertsona juridikoa izatea, eta bidaia- agentziari halako zerbitzuei dagokien faktura eskatzea.
 - c) Bidaiarien eta haien ekipajeen aireko garraio-zerbitzuak izatea eta bidaia-agentziak zerbitzuotan esku-hartzea «International Air Transport Association» elkarteak («Billing and Settlement Plan», BSP-IATA sistema) kudeatutako erreserba- eta likidazio-sistema elektronikoaren bidez.

2. Faktura horiek ondoren adierazten diren datuak edo baldintzak izan behar dituzte (baina beste edozein aipamen jartzeko aukera egongo da):
 - a) Bidaia-agentziak xedapen gehigarri honetan xedatutakoaren babesean egindako faktura dela berariaz adieraztea.
 - b) Araudi honetako 6. artikuluan aipatzen diren datuak eta baldintzak betetzea. Hala ere, faktura egin behar duenari buruzko datuen artean (artikulu horretako 1.c), d) eta e) letretan jasotakoak), bidaia-agentziaren datuak jasoko dira, bai eta bitartekaritza-zerbitzua ematen duen enpresaburu edo profesionalarenak ere.
 - c) Horiez gainera, fakturretan dokumentatzen diren garraio-zerbitzuei dagozkien txartel guztiak argi identifikatzeko aipamen bat jaso behar da fakturretan. Halaber, fakturok gainerakoetatik bereizi behar dira, beste sail batean.
3. Halaber, bidaia-agentziek xedapen gehigarri honetako fakturen bidez dokumentatu ahal izango dituzte beren izenean edo inoren kontura hartzaileari ematen dizkieten bitartekaritza-zerbitzuak, hots, bidaiarien eta haien ekipajeen garraioari dagozkionak. Kasu horretan, bereiz jasoko dira araudi honetan xedatutakoaren arabera fakturan jaso behar diren bitartekaritza-zerbitzuari buruzko datuak.
4. Bidaia-agentziak faktura bakarrean dokumentatu ahal izango ditu hilabeteko epean enpresaburu edo profesional desberdinek hartzaile berari emandako zerbitzuak.
5. Aurreko zenbakietan xedatutakoaz gainera, arautegi honetako aurreikuspenak aplikatzekoak izango dira bidaia-agentziek egindako fakturretan, xedapen gehigarri honen babesean.
6. Honelako fakturak egiten dituzten bidaia-agentziek fakturen erregistro-liburuetan idatziko dute faktura horien oharra. Oharrak idazteko orduan, xedapen gehigarri honetako 1. zenbakiko eragiketei dagozkien zenbatekoak 3. zenbakiko eragiketei dagozkien zenbatekoetatik eta beste agiri edo faktura batzuetako eragiketei dagozkien zebatekoetatik bereizteko moduan islatuko dira.
7. Honelako fakturak egiten dituzten bidaia-agentziek informazio hau jasoko dute hirugarren batzuekin egiten dituzten eragiketen urteko adierazpenean:
 - a) Salmenten barruan, faktura horien bidez dokumentatutako zerbitzuei buruzko informazioa, ondo bereizita.
 - b) Erosketen barruan, bidaiarien eta haien ekipajeen aireko garraioen zerbitzu-prestazioei (xedapen gehigarri honetan aipatzen direnak) buruzko informazioa, ondo bereizita.
8. Xedapen gehigarri honetako fakturak egiten dituzten bidaia-agentziek laguntza eman behar diote Zerga Administrazioari, faktura horietan dokumentatutako zerbitzu-prestazioei dagokienez tributuen arloan garrantzia duen edozein datu, txosten edo aurrekari eskainiz.

Laugarrena. Fakturazio-betebeharrak araupetzen dituen 57/2004 Foru Dekretuari egindako erreferentziak.

Fakturazio-betebeharrak araupetzen dituen apirilaren 6ko 57/2004 Foru Dekretuari egindako erreferentziak direla eta, araudi honi ere egiten zaizkiola ulertuko da.

Bosgarrena. Energiaren Batzorde Nazionalak fakturak egitea, araubide bereziko energia elektrikoaren banatzaile eta ekoizleen edo haien ordezkarien izenean eta kontura.

1. Araubide bereziko energiaren ekoizpen-jarduna arautzen duen maiatzaren 25eko 661/2007 Errege Dekretuko 30. artikulua likidazio eta ordainketaren eginkizuna esleitzen dio Energiaren Batzorde Nazionalari, araubide bereziko eletrizitatearen ekoizleen prima baliokide, prima, pizgarri eta osagaiei dagozkienez. Eginkizun hori honela dokumentatuko

da: batzorde horrek entitate ekoizleen izenean eta kontura edo entitate horien ordezkarien izenean eta kontura egindako fakturen bidez.

Halaber, Energiaren Batzorde Nazionalak fakturak egin beharko ditu energia elektrikoaren banatzaileen izenean eta kontura, eta faktura horiek bat etorriko dira batzordeak errekerimendua egin ondoren sartu beharreko prima baliokide, prima, pizgarri eta osagaiekin, hain zuzen, banatzaileek kontsumitzaileei energia elektriko delat eta kobratutakoekin (horiek araubide bereziko energiaren ekoizpen-jarduna arautzen duen maiatzaren 25eko 661/2007 Errege Dekretuan eta energia elektrikoaren sektoreko azken baliabideko hornidura abian jartzea arautzen duen apirilaren 3ko 485/2009 Errege Dekretuko zazpigarren xedapen gehigarrian aipatzen dira).

2. Aurreko zenbakian aipatutako faturetan, araudi honetako 6.1 artikuluan jasotako datu guztiak jarriko dira, hauek izan ezik: hartzailearen identifikazio-datuak -ekoizleen edo haien ordezkarien kontura egindako fakturen kasuan-, eta faktura-egilearen identifikazio-datuak -banatzaileen kontura egindako fakturen kasuan-. Bi kasuetan, Energiaren Batzorde Nazionalaren identifikazio-datuak jasoko dira, datu horien ordezkari.

Energiaren Batzorde Nazionalak egindako jatorrizko fakturak gordeko ditu, eta haien kopia bidaliko die banatzaile eta ekoizleari edo ordezkariari (hala dagokionean).

Hala egin diren eta Energiaren Batzorde Nazionalak gorde behar dituen fakturak Zerga Administrazioaren esku geratuko dira, haietan islatutako hornidurak direla eta ezinbesteko egiaztapenak egiteko derrigorrezko epean zehar.

3. Hirugarren batzuekin egindako eragiketen urteko adierazpenean, Energiaren Batzorde Nazionalak energia elektrikoaren ekoizleek edo haien ordezkariak eta banatzaileek egindako eragiketak jaso beharko ditu, baldin eta xedapen gehigarri honek ezarritakoaren arabera dokumentatu badira. Adierazpenaren epealdian ekoizle edo haren ordezkari eta banatzaile bakoitzak eginiko eragiketa guztien zenbatekoa adieraziko da adierazpen horretan. Bertan, gainera, erosketa gisa jasoko dira ekoizle edo ordezkari bakoitzari egotzitako araubide bereziko energia elektrikoaren emateak, eta, salamenten artean, xedapen gehigarri honetako prima baliokide, prima, pizgarri eta osagaiak direla eta banatzaile bakoitzari jakinarazitako sarrera-errekerimenduak.
4. Xedapen gehigarri honetan araturikoa hala izango da, hargatik eragotzi gabe honako dokumentazio hau: Energiaren Batzorde Nazionalak prima baliokide, prima, pizgarri eta osagaiak direla eta egiten dituen sarrera-errekerimenduei dagokienez (Balio Erantsiaren gaineko Zerga edo antzakoa, barne) batzordeak egin eta banatzaileei bidalitako dokumentazioa (horiek maiatzaren 25eko 661/2007 Errege Dekretuan eta apirilaren 3ko 485/2009 Errege Dekretuko zazpigarren xedapen gehigarrian aipatzen dira) .
5. Fakturatutako aldiari dagozkion kobratzeko eskubideak eta ordaintzeko betebeharrak aldi osorako energia elektrikoaren emate bakarrari lotuta daudela ulertuko da.
6. Edozelan ere, xedapen gehigarri honetan aipatzen diren eragiketei dagokienez, Energiaren Batzorde Nazionalak laguntza eman behar dio Zerga Administrazioari, eragiketa horien tratamenduari dagokienez tributuen arloan garrantzia duen edozein datu, txosten edo aurrekari eskainiz.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa. Hirugarren batek fakturak egin edo gorde dituela jakinaraztea.

Araudi honetako 5. artikuluko 4. zenbakian eta 19. artikuluko 4. zenbakian xedatutakoari dagokienez, zergapekoak ez du berriro jakinarazi beharko, berariaz, hirugarren batek fakturak egin edo gorde dituela, baldin eta Ogasuneko Zuzendaritza Nagusiak aurretik baimendu badu edo baimena eskatzeko prozedura hasita badago, fakturazio-betebeharrak araupetzen dituen apirilaren 6ko 57/2004 Foru Dekretuan xedatutakoarekin bat.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren baimen-eskaerak, araudi hau indarrean sartzen denean izapidetzen ari badira, une horretan egindako jakinarazpenak direla ulertuko da, non eta jakinarazleari adierazten ez bazaio aurkeztu duen dokumentazioa ez dela nahikoa. Kasu horretan, jakinarazpena falta den dokumentazioa aurkeztean egin dela ulertuko da. Dokumentazio gehiago eskatzeko errekerimendua gehieneko hiru hilabeteko epean egin behar da, araudi hau indarrean sartzen denetik aurrera.

Bigarrena. Fakturak egitea ordezko agirien ordez edo truke .

1. Araudi hau indarrean sartzen denetik aurrera, faturazio betebeharrak araupetzen dituen apirilaren 6ko 57/2004 Foru Dekretuaren arabera egindako ordezko agirien ordez edo truke fakturak egin ahal izango dira, 2. artikuluko 2. zenbakiko a) letran jasotako kasuetan.
2. Ordezko agiriak haietan dokumentatutako eragiketen sortzapen- dataren ondorengo lau urteen barruan ordeztu edo trukatu ahal izango dira.
3. Halako kasuetan egingo den faktura ez da faktura zuzentzailatzat hartuko.